

Bildu eta EAJ Udal Taldeek honako Mozioa aurkezten dute, hainbat herri mugimendu, GGKE, sindikatu eta alderdi biltzen dituen "Gerraren aurkako Gipuzkoako plataforma"ren ekimenez. Bildu eta EAJ Udal Taldeek mozio hau URGENTZIAZ tratatzea eskatzen dute, azaroko Udalbatzan, presaz trata dadin eskatzen duten arrazoiak daudelakoan.

"Mozioa

Israelgo Armadak Gazan burutu duen eraso militarren hazkundeak sortu digun astindua adierazi nahi dugu.

2012ko azaroaren 8an Israelgo Okupazio Indarrek 13 urteko Ahmad abu Daqqa erahil zuten, etxe ondoan futboleko ari zela. Gazak jasaten duen indarkeria aste betez handitu ondoren, su-etena adostu zen, baina Israelek azaroaren 14an hautsi zuen "Defentsa Zutabea" deitu duen erasoaldia bide.

Azken erasoaldi israeldarrek 162 pertsona erahil zituzte eta 1.300 pertsona baino gehiago zauritu. Israelek gainera ur, argi-indar eta erregai ornidura eten izan du, eta horrekin Israelek bidegabeki Gaza setiatu zuenetik bertako biztanleriak pairatzen duen biziraupen krisi latza areagotu besterik ez du egin.

Palestinar Lurraldeak legez kanpo okupaturik dirautelarik eta euren Giza Eskubideak behin eta berriz urratuak direlarik, Israelek nazioarteko legediari muzin egiten diola aintza hartuta....,



Oñatiko Udalbatzak honoko puntuak onartzen ditu:

- 1.- Oñatiko Udalak bere babesa, elkartasuna eta begirunea adierazten dio palestinar herriari.
- 2.- Oñatiko Udalak nazioarteko komunitateari arren eskatzen dio eskura dituen bitarteko guztiak erabil ditzan Israeli bere lege betebeharrak betearazteko, Zuzenbide Estatua bermatzeko eta palestinar herriaren bakea eta segurtasuna bermatzeko. Ildo honetan, Israelek palestinar herriaren gain gauzatzen duen apartheid politika bertan behera geratu artean gazteleraz BDS izenarekin ezagutzen den (boikot, desinbertsio eta isun) kanpainarekin bat egiteko.
- 3.- Oñatiko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioa palestinar herriarekiko elkartasun adierazpen hau helarazi diezaion Israeleko erakundeei; hartara, edozein irtenbide lortzeko dagozkion

konpromezuak betetzeko eta Giza Eskubideak ez urratzeko deialdi hau jaso dezala.

4.- Oñatiko Udalak, nazioarteko komunitatearen parte hartzea izango duen palestinar-israeldar gatazkaren konponbidearen aldeko jarrera berresten du, Nazio Batuen 194. ebazpena gauzatzeko alde biei ahaleginak betetzeko eskatzen dielarik.

Oñatin, 2012ko azaroaren 27an

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke at the bottom.A handwritten signature in black ink, featuring a vertical line on the left and several overlapping loops on the right.